

Berrigara



Almera
Tino



ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN DIRA. DAGOENEO EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO IRAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDO TA

JOKUAK GORDETZEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURITASUNA EMATEN DUEN AUTOA. ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERDINAREKIN. BERAIENTZAT NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA... HORRELAKOA DA NISSAN ALMERA TINO. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
2.2 Di COMFORT	2.834.000 pta.
2.0 AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



Almera
gama
zabala...



SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE

ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera*
ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera*

*Jendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistancia barne eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), barne. Penintsularako eta Balearetarako baliagarria.



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxa. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com



Nortekar



Korrika badator!

Ainhoa Ugarteburu / Korrikako bailarako koordinatzailea

Hasi du jada bere martxa Korrikak. Atzo abiatu zen Gasteiztik, 12. edizioa izango dena. 1980an, Oñatitik Bilbora Euskal Herria zeharkatu zuen Korrika 1 antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Orduetik 11 Korrika eta 20 urte bete dira, baina Korrikaren arrakastak bere horretan jarraitzen du. Izan ere, 11 egunez gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa erraldoia ez da egunero ikusten den ekitaldia. 2.100 kilometro baino gehiago korrituz, adin eta mota guztietako milaka pertsonak parte hartzen dute gau eta egun.

XXI. mendearen atarian gauden honetan, munduaren globalizazioaz hainbeste hitz egin eta idazten den garai honetan, berebiziko garrantzia du munduan diren hizkuntzen eta kulturen iraupenak. Globalizazioaren bidez uniformizazioa saldu nahi digutenean

aurrean, hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko apustua egin nahi du Korrikak. Ez gara kolore bakarraren aldeko, paisaia koloretsua dugu gogoko. Globalizazioak aukera eman behar du kultura bakoitza bakartuta egon beharrean, kultura guztiek elkarri eraginez bizitzeko, norgehiagoka baino, elkarren ondoan, elkarren parean izateko. Kultura eta hizkuntzen uniformizazioa dakarren globalizazioari aurre egin nahi dio Korrikak.

«Munduaren globalizazioaz hainbeste hitz egin eta idazten den garai honetan, berebiziko garrantzia du munduan diren hizkuntzen eta kulturen iraupenak»

Beraz, Korrika 12k euskara eta euskal kulturaren iraupenak duen garrantzia azpimarratu nahi du, mundu bat euskarara bildu nahi du Korrikak. Euskara munduko herritar guztion ondarea da, eta aberastasun horri elkarrekin eutsi behar diogu; geureari eutsiz eta geurearen alde bilduz. Horrek herritarron ahalegina eskatzen du; euskal kulturak zabaltzen duen munduaz jabetzea, euskal kulturaren murgiltzea.

Aurtengo omendua, Euskal Herriko bertsozale elkarteak izango da. Atzoko eta gaurko bertsolari, gai jartzaile, bertso paper biltzaile eta, orokorrean, bertsolaritza garra pizturik mantentzen lagundu duten bertsozale guztiei egingo die omenaldia Korrika 12k.

Badaukagu, beraz, astelehen honetan, apirilaren 2an, Bergaran hitzordua Korrikarekin, 20:30ak inguruan.

Animo eta parte har ezazue!!!<

barruan



B. McFarlane

Tuan musika taldeko kidea

«Gure abestietako batzuek Irlandako mendeetako borroka kontatzen dute»

6.



Lupe Garcia

Estetizista

«Zelulitisaren arazoan, arrazioa topatu behar da, horrela, tratamendu egokia jartzeko»

11.



Nuria Rodriguez

Aerobik irakaslia

«Bergaran eta Elgetan emoten ditud eskolak; hemen 200 ikasle dauzkat; Elgetan 23»

13.

hi, gazte!



BEKAK

Kontsumoa. Eusko Jaurlaritzak. Lizentziadunak. Kontsumoaren arloko prestakuntza eta ikerketarako lau beka. Epea: apirilak 30.

Musika. Artisten Elkarteak. Musika ikasketak eta goi mailako musika espezializazio ikasketak egin edo areagotzeko 115 beka. Epea: apirilak 20.

Ikerketa. Instituto de Credito Oficial fundazioa. Lizentziadunak, 1970. urte ondoren jaiotakoak. 2001/2002 ikastutuan atzerriko unibertsitateetan ikasketak eta ikerketa-lanak areagotzeko beka. Epea: apirilak 16.

JARDUERAK

Auzolandegiak 2001. Eusko Jaurlaritzak. Auzolandegiak Euskadin, autonomia erkidegoetan eta atzerrian. Hainbat arlo: berreraikitzea, ingurumena, animazioa, etnografia... Zozketarako izena ematea Kutxan. Informazioa: Gazte Informazio Gunean. Epea: martxoaren 26tik apirilaren 6ra.

Udalekuak 2001. Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoandako. Zazpi edo 14 eguneko txandak (elebidunak eta euskaraz), kirol ekintzak eta ingeles ikastaroa. Zozketarako izena ematea; Gazte Informazio Gunea (Bergarako Kultura etxea) edo <http://www.gipuzkoa.net/oporraldi>. Epea: martxoaren 23tik apirilaren 2ra.

Arkeologia. Aranzadi Zientzia Elkarteak. Gipuzkoako II. arkeologia jardunaldiak. Aranzadi Zientzia Elkartearen ekitaldi aretoan. Epea: apirilak 10.

SARIAK

Musika. Gabaltzeka Puba. Nahi duten bakarleri edo taldeak. Blanca de Navarra maketa lehiaketa. Epea: apirilak 25.

TURISMOA

Turismoa. Bertako nahiz atzerriko informazio turistikoa. Eskuorriak hartzeko edo aztertzeko aukera. Txartel internazionalak eta adin guztietarako aterpekidetxartelak.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekidetxarteak (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.


OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoekin informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Bergara bedar

Sekulabedarra ere erabiltzen da. *Trifolium pratense*. Hirusta. Goierri aldeko zenbait tokitan izen honekin ezagutzen dute hirusta.



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Martxoak 22, eguna	24 °C	14 °C	0,3 l/m ²
Martxoak 23, egubakoitza	28 °C	8 °C	- l/m ²
Martxoak 24, zapatua	20 °C	7 °C	0,4 l/m ²
Martxoak 25, domeka	17 °C	8 °C	3,9 l/m ²
Martxoak 26, astelehena	17 °C	5 °C	2,7 l/m ²
Martxoak 27, martitzena	17 °C	7 °C	0,6 l/m ²
Martxoak 28, eguaztena	16 °C	8 °C	19,8 l/m ²

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:00.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

Basalgo
Domekak: 13:00.

San Prudentzio
Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.

Angiozar
Domekak: 11:00.
Eguakitzak: 19:00.

Monja Zaharrak
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga
Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 30:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
ZAPATUA 31:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
DOMEKA 1:
PUY. Barrenkalea 2. 943 76 16 87
ASTELEHENA 2:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
MARTITZENA 3:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
EGUAZTENA 4:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUENA 5:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 1. Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea. 943 76 24 40
Asepeyo. 943 76 16 43
Pakea. 943 76 13 49
Angiozarko medikua. 943 78 90 27
Antzuolako medikua. 943 76 62 23
Odol emaleak. 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06
GARRAIOAK
Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46
Udal Artxiboa. 943 77 91 32
Igerilekuak. 943 76 20 51
Kultur Etxea. 943 77 91 58
Liburutegia. 943 77 91 62
Kiroldegia. 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92
Erregistroa. 943 76 13 15
Jardun. 943 76 36 61
Idolaz. 943 76 65 08
Jubilatuaren Etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea. 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal euskaltegia. 943 76 44 53
Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ 1937an jaiotakoen afaria:

Apirilaren 7an. Arratsaldeko 19:00etan hildakoen oroimenezko meza izango da Santa Marinar eta 21:00etan afaria, Antxonin. Izena ematea Antxonin bertan (2.000 pezetako depositoa).

■ EAJ-EA:

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenek Batzokira (astebarrian 9:00etatik 21:00etara) edo Elkartetxera (astebarrian 11:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 14:00etara) jo dezakete.

Hurrengo alean,

Aste Santuko

oporren aurrekoan,

apirilaren 6tik 19ra

bitartekoen zorion agurrak

argitaratuko ditugu.

zorionak!



Iker Poza
30ean urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Iban Moreno
31n 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Lidia Peña
30ean 15 urte.
Urte askotarako
amonatxo! Koadrila-
koak eta batez ere...



Julen Markez
2an 7 urte.
Urte askotarako!
Yanire eta etxekoak.



Luis Peña
2an 63 urte.
Urte askotarako!
Lorezainak.



Oier Tola
31n 15 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak
eta arreba.



Jone Muniategi
4an urtebete.
Urte askotarako!
Aitona-amonak.



Maialen Goizelaia
3an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Igor Iglesias
30ean 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ramon Garcia
4an 41 urte.
Urte askotarako!
Arian, Aitor eta
Asier.



Iker Moreno
1ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Larrañaga
2an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Bingen Alkorta
30ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jokin Elkorobezibar
5ean 33 urte. Urte
askotarako! Marian
eta etorriko dena.



Xabi Azpiazu
5ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Beñat Escribano
5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Eukene eta Markel.

jardunen agenda



■ Bergara ezagutzen lehiaketa:

Gaur, martxoak 30, arratsaldeko 19:30ean lehiaketako finala jokatu dute: Petu-petuan, Txapuzeruak taldearen aurka. Final ostean sari banaketa egongo da.

■ Topaguneko udalekuak 2001:

DBH 1 eta 2. mailakoei zuzenduta. Uztailaren 16tik 29ra Ubidean (Bizkaia). Informazioa eta izena emateko azken eguna maiatzaren 4a da.

■ Euskal Herriko gazteen jai-topaketak Pasaian:

14-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta: tailerrak, jokuak, kontzertuak... Guztira 5.000 pta. Apuntatzeko azken eguna: apirilaren 6a.

■ Txorimalo lehiaketa:

Izena emateko azken eguna: apirilaren 2a.

■ Jardun Korrikan:

Apirilaren 2an, astelehena, 20:15ean Osintxun kilometro bat: pilotaleku parean. Zatoz!

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak eta heldulekuak
Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea
☎ 943 76 18 93

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

MUJIKA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"

BAP LA UNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Irlandarra da. Musika-ria. Terry O'Neillekin eta beste bi kiderekin batera, Tuan taldea osatzen du, 20 urtean espetxean egon ostean. Bergaran izan da egunotan Tuan taldea, eta Korrika Kulturalaren barruan bi kontzertu eskaini ditu: Durangon eta Gasteizen.

G. Lehenengo aldia da Euskal Herrira etortzen zarelara. Zer iruditu zaizu?

E. Jendearen berotasuna datorkit lehenengo burura. Oso ondo hartu gaituzte. Paisaia ere zoragarria da.

Atentzioa eman dit, bestalde, zenbat ikurrin eta preso-en aldeko adierazpen ikusten den kaleetan. Horrekin lotuta, euskal gatazkaren gainean asko ikasi dugu, nahiz eta lehendik ere bagenekien zerbait, Irlandara joaten diren euskaldunengatik.

G. Euskal gatazka aipatu duzu. Eta zertan da zuen bake prozesua?

E. Berritxo ere krisian dago. Duela bi urtetik hona, ia Aste Santuko akordioa sinatu zenetik, gora-beherekin dabil. Duela bi aste arte, oso negoziazio latzak izan dira britainiarren eta ordezkari errepublikarren artean. Gai garrantzitsuenetako bat polizia da. Polizia-zerbitzu berria ezarri nahi digute, komunitate guztiak onar ditzakeen zerbitzua. Bestalde, errepublikarrak ez daude oso baikor; izan ere, bake prozesuak mugak gaintu eta Irlandako gobernuak parte hartu nahi du. Unio-nistak, hala ere, ez datoz horrekin bat. Mugak Irlandako iparraldean ixten ditzute.

Bake prozesuak, seguru-erik, geldialdia izango du. Horrek, hala ere, ez du gure, Sinn Fein-en, estrategian eragiten, gure bake estrategia dugulako.

BRENDAN MCFARLANE

Tuan musika taldeko kidea

«Gure abestietako batzuek Irlandako mendetako borroka kontatzen dute»



Euskal Herrira etortzen den lehen aldia da. Itzuliko dela zin egin du.

G. Oraindik badago preso politikorik Irlandan?

E. Irlandako hegoaldean bost preso ditugu. Limerick hirian banku bat lapurtu zuten, eta hantxe sortutako tiroketa baten guardia bat hil zuten. Atxilotu egin zituzten, baina ez dituzte kaleratu nahi. Aste Santuko akordioak esaten du preso politikoa guztiak kalean be-

«Oso jende gutxi egiten du berba gaeleraz. Euskal Herrian bezalatsu, hizkuntzak eta ideiek errepresio oso gogorra jasan dute Irlandan»

har dutela. Baina, gobernuak kondenatu egin ditu lapurketagatik eta armak edukitzeagatik. Ez die eman nahi preso politiko estatuisik. Horrela, ez ditu zertan aske utzi, Aste Santuan hartzatutakoaren arabera.

G. Zuk hogeitau urte egin dituzu kartzelan, eta hantxe hasi zinen musikan.

E. Bai. Kartzelan sartu aurretik ez nuen Terry O'Neill ezagutzen. 70eko hamarkadan, haren anaia Paul ezagutu nuen kartzelan, musikaria hura ere. Ni orduan hasi nintzen musikan. Anaiaren bidez, jakin nuen Terryk gurekin CD bat egiteko gogoia zuela. Nik espetxean egindako sei kantu utzi nizkion, eta preso-en familiei laguntzeko CDa kaleratu zuen. Horren ostean, kantu gehiago eskatu zizkidan. Azkenik, kartzelatik irten eta bere taldeko kide egin nintzen, 97an.

G. Zein musika mota egiten duzue?

E. Irlandako musika tradizionalak nahasten ditugu: "reels", "tunes" eta "jigs"ak. Batez ere, dantza egiteko musikak dira. Folk musika ere egiten dugu.

G. Musika politikoa da?

E. Denetarik. Irlandako errepublikarren kantu aukeraketa zabala dugu. Abesti horiek irlandarren mendetako borroka kontatzen dute, eta maiz, britainiarren eragina salatzen dute. Irlandagatik borrokatzen hil diren heroiaren kantuak ere baditugu. Kantu batzuk jendea borrokatzera animatzen dute. Hizkuntzari dagokionez, batez ere, ingelesez abesten dugu, gaelera alde batera utzi barik. Izan ere, oso jende gutxi berba egiten du gaeleraz. Ingelesak hil egin du. Azken baten, Euskal Herrian bezalatsu, hizkuntzak eta ideiek oso errepresio handia jasan dute.

Sahararren autodeterminazio eskubidearen alde egingo du udalak

Gleibat Elfula herrira laguntza humanitarioa ere bidaliko du

Konpromiso horiek martxoaren 18an hartu zituen udalak, Saharako Gleibat Elfula herriarekin sinatu duen elkartasunerako senidetzea dela medio. Sinatze ekitaldia Gleibat Elfulan egin zuten. Juanjo Arrieta alkateordea joan zen Bergarako ordezkari gisa.



Juanjo Arrieta eta Gleibat Elfulako alkatea opariak trukutzen.

Elkartasunerako senidetzearen helburu nagusia da Saharan geldituta dagoen autodeterminaziorako erreferenduma bultzatu eta babestea. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak 1985ean onartu zuen Sahara herriaren autodeterminazio eskubidea, eta erreferenduma egiteko data 1992ko urtarrilerako ezarri zuen. Hala eta guztiz ere, hautesleen errolda behar bezala osatu ahal izateko, Marokok ezartzen zituen eragozpenen ondorioz, bertan behera geratu zen bozketak.

BI HERRI, HELBURU BERA

Beste oinarri batzuk ere baditu Bergarak eta Gleibat Elfulak sinatutako senidetzeak: hala nola, Saharako auzia modu baketsuan konponduko duten ekimenak bultzatzea, bi herrien arteko harreman soziokultural, ekonomiko, kirol eta turistikoak bultzatzea, eta nork bere herrian elkartasunaren ideia zabaltzea.

Senidetzeak Saharako Errepublikaren 25. urteurrenarekin egin du bat, eta Euskal Herriko legebiltzarreko 'Bakea Sahararako' taldeak bultzatu du.

Euskal Herriko hainbat herritako udalek sinatua zuten aurretiaz hitzarmena. Hurbilean, Oñatik, esate baterako. Bergararekin batera, beste hogeit hamar ere sinatu zuten hitzarmena mar-

txoaren 18an, Arrasatek, besteak beste.

LAGUNTZA HUMANITARIOA

Senidetze dokumentuko konpromisoez gain, beste bi ere hartu ditu Bergarako Udalak Gleibat Elfularekin. Batetik, udan Bergarako etxeetan neska-mutiko sahararrak hartzeko. Sahara osoan 10.000 ume inguru daude. Gauzak horrela, udalak dei egiten die herritarrei zortzi eta hamar urte bitarteko neska-mutikoak etxean hartzeko, uztailean eta abuztuan. Ekimen hori atxikitzea nahi duenak udaleko Ongizate Sailera dei dezake.

Bestetik, beharrezkoak dituzten botika, bozgoragailu eta mikrofonoak emango dizkio udalak Gleibat Elfula herriari. Hango ordezkariak Bergaran bertan jasoko dituzte batutako gaiak, uztailean, umeak ekartzera hurbiltzen direnean.

Ibargarai 27ko etxea botako dute laster

Ibargarai 27 zenbakia duen etxea bota egingo dute gutxi barru. Dagoeneko, "Arrizuri UTE" enpresak, eraikina botako duenak, aurkeztu du proiektua udalean, eta gobernu batzordeak onartu egin du. Etxebizitza hori 20. areako urbanizazio planen barruan dago, eta Ibargarai eremu berria eraikitzeko beste urrats bat da. Aurrerago, etxe horren ostean dagoena ere bota egingo dute. Udaleko iturrien arabera, gune horretan etxe gehiago eraikiko dituzte, beste etxebizitza multzo bat, hain zuzen ere, zezen-plaza zaharrean eraikitzen ari direnarekin bat eginez.



Goiena kooperatiba elkartearen lehen batzar nagusia bihar Arrasaten

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen lehen batzar nagusia egingo da bihar, zapa-tua, Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusi-ko aretoan. Bihar, martxoak 31, urtebete beteko da Goienak eratze batzarra egin zuela.

Iaz, bi batzar egin zituen Goienak: martxoaren 31n eratze batzarra eta uztailen batzar berezia; azken hori karguak izendatu eta hainbat betebeharrak egiteko. Bihar, ostera, lehen batzar nagusi arrunta egingo da, eta horrelakoetan izaten diren gaiak landuko ditu: iazko txostena eta diru kontuak, aurtengo gestio plana, bete beharrekoak, eta bakoitzak dakarrena. Elkarre sortzaileek, hau da, bailarako euskara elkarteek, lehen



Martxoaren 1ean sinatu zuen Goienak hitzarmena euskara elkarteekin.

aldiz izango dituzte alboan bazkide laguntzaileak eta lan-bazkideak.

Aurten, martxoan, bi hitzarmen sinatu ditu Goienak. Batetik, martxoaren 1ean, Bergaran, bailarako euskara elkarteekin, herri komunikabideen produkzioa Goienaren esku uzte-

ko. Bestetik, martxoaren 15ean, Goiena egitasmoari baietza eman dioten eskualdeko udalekin, Aramaion. Bergara, Oñati eta Elgetako udalek izan ezik, beste sei udalek sinatu zuten hitzarmena.

Biharko batzar nagusia 09:30ean hasiko da. Aurkez-

penaren ondoren, aurreko urteko jardueraren eta diru kontuen berri emango da bideo baten bitartez. Jarraian, galde-erantzunen tarteak izango da, eta ondoren, bozketa. 10:00etan, aurtengo gestio plana aurkeztuko da eta galde-erantzunendako tartearen ostean, bozketa egingo da.

AURKEZPEN EKITALDIA

Batzar nagusia 11:00etan amaituko da. Ondoren, Goiena egitasmoa aurkeztuko da prentsaren aurrean, eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo da. Hantxe izango dira Goienako buruak, Debagoieneko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Baita hainbat arlotako pertsona ezagunak ere.

Emakumeak han ikasteko bitartekoak jarriko ditu Lan sailak Miguel Altunan

Hilaren 23an, Sabin Intxaurraga Lan sailburua Miguel Altuna institutuan izan zen. Jose Mari Larrañaga zuzendariarekin batu, eta besteak beste, emakumea lanean zelan integratu izan zuten hizpide. Ildo horretan,

eskolak eta Lan Sailak elkarrekin egin dezaketen lanaz jardun zuten.

Lanbide Heziketa emakumeendako ez delako ustea hedatuta dago Larrañagaren ustez. Eskolak uste horrekin apurtu, eta emaku-

meek bertan ikastea nahi du, lanean sartzeko aukera gehiago izango luketelako.

Horretarako, Lan Sailaren laguntza jasoko dute Miguel Altunan: ekipamenduan, eta ikastaroak diruz laguntzen.



Intxaurraga instalazioak ikusten.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

K

BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera komisioa: %0,25, 35 urte bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.


Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Gorlako kantina zaharra bota egingo dute laster

Gorlako kantina zaharra bota egingo dute hemendik gutxira. Ez du araudia betetzen, eta udalak aspaldi hartu zuen kantina botatzeko erabakia. Hala ere, kantinaren nagusiekin izandako gorabeherak direla medio, atzeratu egin da botatzea.

Azken hilabeteetan, bi proposamen egin dizkie udalak kantinako jabeei: batetik, kantinaren balioa kontuan izanda, eskaintza bat egin zieten, hala ere, ez zuten onartu. Asteleheneko osoko bilkuran, Victoriano Gallastegi alkateak esan zuenez, bigarren proposamen bat ere egin die udalak kantinako jabeei. Horren arabera, LKS enpresa arduratuko da kantina tasatzeaz. Bigarren proposamen hori onartu egin dute kantina zaharreko jabeek.

Gauzak horrela, tasazioa egin eta denbora laburrera botako dute Gorlako kantina zaharra.



Laster botako dute kantina zaharra, eta berriak oraindik itxita dirau.

KANTINA BERRIA ORAINDIK ITXITA

Bestalde, udalak berak egindako Askagain kantinak itxita dirau oraindik, ia zetik, irailaren 11tik, hain zuzen ere. Ordu arteko kantinako arduradunari kontratua amaitu zitzaion, eta udalak kantinaren adjudikaziorako lehiaketa bi aldiz egin duen arren, ez da inor aurkeztu. Bien bitartean, hainbat egokitzapen egin ditu udalak kantina berrian.

Berria itxita egonda, eta zaharra desagertzeko bidean, Gorlako aisiagunea kantinarik gabe geratzeko arriskua dago. Hori horrela izanik, udaleko iturrien arabera, kantina zaharra botatzean, norbait aurkeztuko den "esperantza" dute. Horrela gertatuko ez balitz, prest agertu dira kantina ustiatzeko jartzen dituzten baldintzak aldatzeko. Baita interesatuta balego, haren baldintzak onartzeko ere.

Kale garbiketa zerbitzua lehiaketara

Joan zen asteleheneko osoko bilkuran onartu zituzten garbiketa zerbitzuko baldintzak. Zortzi urteko epea izango du kontratuak, eta 78 milioi pezetako prezioa urte bakoitzeko. Zerbitzua beteko duen enpresak udal langileen kargu ere egin beharko du. Iazko ekainean apurtu egin zuen Udalak MSG garbiketa enpresarekin zuen akordioa: kexuak jaso zituzten udalean zerbitzua ona ez zelako. Orduetik, CESPAr arduratu da kaleak garbitzeaz.

Hauteskundeetako errolda jendaurrean

Hautesleek zerrenda apirilaren 2a arte jendaurrean dagoela jakinarazi du udalak. Interesatuak idazkaritzako bulegoetan aurkez ditzakete erreklamazioak.

PINTXO eta BOKADILLOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

CAMACHO



Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

POL-POL

Taberna

943 76 07 78



Ur~bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

Berrigara

446 zenbakia.
2001eko martxoaren 30a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketaria: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatzailea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Álvarez, Bittor Rodríguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Juan Martin Elkupuru, Arantazu Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Bizitzan zer da gehixen apreziatzen dozuna? Zeri emoten jatzu lehentasuna?



Jabi Perez

Lagunekin egotia eta eguneroko bizitza bizitzia.



Maritxu Berasategi

Osasuna; orain, behintzat, osasuna, daukagun edadiakin. Eta, noski, ondo pasatzia.



Julian Aiastui

Osasuna, diru pixkat edukitzia bizi izateko, eta bakia. Hiru horretzek baloratzen dittut gehixen.



Laura Bretaña

Familixia; lagunak be bai, baiña azkenian, inportantienna neretako familixia da.



Unai Aperribai


Maittasuna, askatasuna eta norbere buruakin pozik egotia dira neretako gauzarik inportantienak.



Nieves Uriarte

Neure seme-alaba eta billobek neu maitte izatia. Eta bakia egon deilla.

tira biraka oihan vega



adituen esanetan

Zelulitisa

Ez da erraza definizio bat ematea, baina esan dezakegu ehun konjuntiboren alterazioa dela zelulitisa. Gehienbat emakumeek izaten dute alterazio hori, eta izter aldean, batik bat. Dena dela, gizonetako ere izaten dute, soinean.

Zelulitisa daukan pertsona bat etortzen denean, eman beharreko lehen urratsa, zelulitis horren arrazoa bilatzea da; hau da, zergatik sortu den jakitea. Horrela, fitxa biomorfologiko bat egiten dugu, eta arrazoiaren araberak, tratamendu bat

edo beste bat jarraitu beharko dugu alterazio hori konpontzeko. Esan dezakegu lehen urrats hori dela garrantzitsuena; izan ere, zelulitisa nondik datorren ez baldin badakigu, nekez jakingo dugu zein den tratamendurik egokiena.

Dena dela, arrazoi ugari egon daiteke: hereditarioa izan daiteke, egoneko bizitzagatik, arrazoi hormonalengatik, elikadura txarrarengatik, sistema endokrino edo neurologikoaren alterazioak eragindakoa ere izan daiteke; zirkula-



LUPE GARCIA

Estetizista

«Lehen urratsa, eta garrantzitsuena, zelulitisaren arrazoa zein den bilatzea da, horrela, tratamendu egokia jartzeko»

prebenitu egin dezakegu.

Arrazoi hormonalak eta hereditarioak tartean izanda ere, beste faktore batzuen araberak alterazioa handiagoa edo txikiagoa izango da: esan bezala, garrantzitsua da elikadura, ariketa fisikoa egitea... Izan ere, mugimendurekin giltzurrunak eta, era berean, sistema zirkulatorio osoa aktibatzen dugu. Arrazoi nagusia zein den jakin behar dugu, baina arrazoi bat bakarrik ez da goela ere kontuan hartu behar dugu.

zio txarraren ondorio izaten da kasu gehienetan. Zirkulazio txarraren arrazoiak izan daitezke: tabakoa, alkohola, elikadura desegokia, arropa estua... Gehienetan nerabezaroan azaltzen da zelulitisa, hilerokoa lehenengoz agertzen denean.

Arrazoi hormonalak oso garrantzitsuak izaten dira, eragin handia izaten du faktore hormonalak. Oso garrantzitsua izaten da, gainera, senitartekoen artean antzerako kasuren bat egon den jakitea (amak edo amonak izan duen...). Era horretan,

kaleen izenak

Simon Arrieta plaza (eta II)

Simonek pinturako lehenengo ikasketak Eustaquio Agirreolearekin egin zituen herriko Arte eta Lanbide Eskolan. Hori dela eta, 1947an Bergaran Eustaquio Agirreolari egin zioten omenaldiaren bultzatzailetako bat izan zen hain zuzen. Ikasketak Seminarioan zegoen "Escuela de Trabajo y Profesional textil"-en jarraitu zituen 1928 eta 1930 bitartean. Irakasleak, pinturarako dohaina zuela ikusita, Madrilera joateko esan zion Prado Museoko pinturen kopiak egitera. Garai hartan ezagutu zuen bere lanean eragin nabaria izango zuen Ignacio Zuloaga pintorea. Hurrengo urtean berriz ere Madrilera joan zen, Valentin de Zubiaurreren ikasle gisa. Orduantxe hasi zen Gipuzkoako Foru Aldundiak artista gazteentzako antolatzen zituen erakusketetara aurkezten. Gerra zela eta, Mallorcan egon zen, eta 1941ean Mallorcako "Arte Ederretako I. Erakusketa Nazional"-ean lehenengo saria lortu zuen. Ondoren, Bergarara bueltatu zenean ere, 1943ko Gipuzkoako Artista gazteen erakusketan lehenengo saria lortu zuen "Sr. Alberdi" erretratuarekin.

Ordurako, Simon Arrieta pintore ezaguna zen, eta erretratuaren teknika menperatzen zuen; bakarkako erakusketak ere egiten hasi zen. 1950ean bere familiarekin Madrilera joan zen bizitzera. Hango "Circulo de Bellas Artes"-en egin zuen erakusketan sekulako arrakasta lortu zuen; koadro guztiak saldu eta enkargu ugari izan zituen.

Gure herrira berriz bueltatu zenerako pintore ospetsua zen. 1962 eta 1963an San Martinen omenez egin zituzten ekitaldietan parte hartu zuen. Orduan margotu zuen udaletxeko eskaileretako paretan San Martinen martirioren freskoa. Tamalez, gazterik hil zen, 54 urte zituela.


Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.



Zirkulazio txarra izaten da zelulitisaren arrazoi nagusia.

Andoni Aizpururekin, irudia hizpide

Aranzadi ikastolak antolatutako Aste Kulturalaren barruan, **Andoni Aizpuru** ETBko aurkezleak hitzaldia eman zuen eguazten goizean. **Gizartean irudiak duen garrantzia** izan zuen hizpide, eta, nola ez, telebistan daukan garrantzia. UNEDeko aretoan bildutako ikasle eta irakasleak gustura asko egon ziren, eta nahi adina galdera egiteko aukera ere izan zuten.



Izenik gabeko kalea

Bitxia da, baina halaxe da. Badago Bergaran izenik ez daukan kale bat: **hilerrirako sarrera dagoen kalea**, hain zuzen ere. Orain, kale horri izen bat topatzen dihardute udaleko arduradunek. Alde batetik, Ondare batzordekoek zerrendatxo bat prestatu dute: Martina Maiz, Telesforo Maria Monzon, Remigio Mujika, Nikolas Mujika eta Julian Guimon. Martina Maiz aukera proposatuko dute, seguruenik. Bestetik, Euskara Zerbitzukoek ere ikerketatxo bat egiten dihardute, toponimoren baten bila. Helburua da ahalik eta izenik egokiena topatzea. Proposamenak proposamen, datorren osoko bilkuran hartuko ei da azken erabakia. Ia, bada, ze izen jartzen dioten!

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 76. zenbakia. 2001eko martxoaren 30a.

Hemen da hamabigarren Korrika!

Astlehenean iritsiko da herrira gaueko 09:10 inguruan

Bi urteren bueltan, bihar bertan iritsiko da Antzuolara euskararen aldeko Korrika. AEK-k antolatzen duen lasterketaren 12. aldia da, eta aurtengo egitasmoa Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian euskaltegiak sortzea da, baina, bereziki, Baionan euskaltegia eta herrialdeko egitura kokatzeko egoitza zabaltzea.

Korrika pasa baino lehenago, Korrika kulturalaren barruan, hainbat ekitaldi egongo dira, giroa berotu eta jendea animatzeko. Bihar, zapatua, esate baterako, musika emanaldia egongo da herrian. Gaztetxean izango da, eta behin baino gehiagotan herrian izan dugun talde bat gonbidatu dute: Skalariak. Ska talde honek gaueko 10:30ean eskainiko du musika emanaldia. Sarrera 500 pezeta kostako da.

UMEEN TXANDA

Eta zapatu gauean gazteen txanda izango den arren, domekan gaztetxoek izango dute ondo pasatzeko aukera. Txan Handia magoa izango dugu bisitan herrian. Hainbat aldiz bere magia triki-mailuekin gozatzeko aukera izango zenuen, eta, orain, aurrez aurre ikusteko aukera izango duzue. Emanaldia zine aretoan izango da, arratsaldeko 6etan.

MATERIALA SALGAI

Eta domekan, Korrikako materiala salgai jarriko dute Korrikako lagunek. Ainhoa Ugarteburuk, Korrikako Debagoieneko koordinatzaileak, adierazi digunez, "praka, gona, udako elastiko, arkatx eta beste hainbat gauza jarriko ditugu salgai". Korrikaren alde dirua jasotzeko materiala da guztia. "Bada, ordea, dirua jasotzeko beste modu bat ere: kuestazioa



Skalariak taldearen kontzertua zapatuan, 22:30ean, Gaztetxean

eta kilometro salmenta. Kuestazioa joan zen asteburuan egin genuen eta 12.355 pezeta jaso genituen. Aurten zazpi kilometro erosi dizkigute herriko enpresek eta udalak; Antzuolako Udalak, Elay Taldeak, Elayko langileek, Matz Errekak eta Goizperrek erosi dituzte. Guztira 280.000 pezeta jaso ditugu". Eta, hain zuzen, kilometro horiek izango dira Korri-

kak Antzuolan zeharkatuko dituenak. Apirilaren 2an, astlehenean, iritsiko da Bergararik iluntzeko 8:59an. Herri barrura 21:11n iritsiko da, eta udal ordezkariak eta AEKk ematen dituen EGA eskolako ikasleek eramango dute testigua herri barruan. Gero, Deskarga gainean urretxuarrei emango diete testigua.

■ ■ ■
Domekan, 18:00etan, zine aretoan Txan mago ospetsuaren emanaldia izango da
■ ■ ■

Elay Taldea izan zen Gipuzkoako esportatzaile nagusiena

Joan zen asteen banatu zituen Gipuzkoako Merkataritza Ganberak enpresa azpimarragarrienen sariak. Azpeitiko Kiruri jatetxean egin zuten sari banaketa eta Elay taldeak jaso zuen han banatutako sarietako bat: esportatzaile nagusienaren saria, hain zuzen ere. Izan ere, Elay taldeak 2000. urtean izandako irabazietatik %60 esportaziotik jaso zituen; irabazietatik, 8.300 milioi pezetatik, salmenten %60 kanpoan saldu zuen. Bost kontinentetan saltzen du Elayk, baina 2005. urtera bitartean Amerika eta Kanadako merkatuak handitzea nahiko lukete arduradunek: Mexiko, Kanada eta EEBBkoak.

CELAYATIK BARRENA

Elay Taldeak lantegi bat ireki zuen iaz Mexikon eta, dagoeneko, 45 bat langilek dihardute han lanean. Lantegi horren helburua Amerika eta Kanadako merkatuan tokia egitea litzateke, eta 2005. urtera bitartean 1.000 milioi pezetako salmentak aurrez ikusten ditu EEBB, Kanada eta Mexikoko merkatuei esker.

Elay Taldeak, Celayako lantegiko



Santi Zabaleta Merkataritza Ganberak emandako saria jasotzen.

langileez gain, 338 langile dauzka uneotan lanean.

SARI BANAKETA

Azpeitiko Kiruri jatetxean egin zen sari banaketan Elay Taldeko zuzendari oroko-

rra izan zen: Santi Zabaleta. Berak adierazi zuenez, "sari hau talde osoaren lanaren errekonozimendua da. Ni naiz Elay Taldearen ordezkaria kontu horretan, baina hau talde guztiaren lanari emandako saria da".

Dantzari eguna datorren domekan, apirilaren 8an

Urtero Debagoieneko herri baten ospatzen dute, eta aurten, Antzuolari egokitu zaio. Duela urte batzuk erabaki zuten, inguruko herrietako dantza taldeekin batera, horrelako egun bat antolatzea, euskal dantzak bultzatzeko. Iaz, Arrasaten ospatu zuten. Goiz eta arratsalde arituko dira inguruko herrietako dantzariak. Goizeko saioa 12:30ean hasiko da; arratsaldekoa, berriz, 17:30ean.



Iaz, Arrasaten ospatu zuten Dantzari Eguna.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazulatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Herri kanpotik doan errepidea hobetzea eskatzen dute herritarrek

Joan zen asteko egubakoitzean jende dezente elkartu zen DYA parean euren eskaria agertzeko. Antzuolako Udalak deitu zituen herritarrek, errepideak sortutako arazoengatik protesta egingeko, eta 150 bat lagunek hartu zuen parte protestan errepidea moztuz.

Udal ordezkariak adierazi dutenez, egoera hobetzeko Foru Aldundiko Errepide Departamenduarekin harremanetan jarri diren arren, ez diete erantzunik eman. "Beti ezezko erantzuna jasoz dugu".

Udalaren ustez, "Beasain-Durango korridorea egitea arazoa hobetzeko modu bat litzateke, baina badirudi lanak ez direla hasiko 2005. urtera arte". Izan ere, Bergarako saihebidetako lanak eta Ormaiztegi-Zumarraga arteko autobidetako lanak aurreratu egin ditu Diputazioak, eta Bergara eta Zumarraga arteko lanak atzeratu. Antzuolako Udalak, horren au-



150 bat lagun bildu zire hilaren 23ko protestaldian.

rrean, lehenbailehen konponbidea ematea eskatzen du, izan ere, errepide zati hori oso arriskutsua da: errepidea "nazionala" da eta trafiko handia egoten da

egunero; horrez gain, bihurgune batetik oso gertu dago oinezkoendako pasabidea, eta horrek arriskua handitu egiten du.

Irlandarrak Antzuola bisitatzen izan ziren

Irlandarrek ezagutzen ei dute Euskal Herria. Hara joan eta euskalduna zarela esanez gero, denek ulertzen ei dute. Baina Antzuola aipatuz gero, hori bai ezagutzen dutela; izan ere, urtero-urtero joaten da antzuolar koadrilla bat Belfast aldera. Orain, irlandar batzuen txanda izan da. Terry O'Neill eta Bik MacFarlane musikariak herrian izan ziren joan zen astean, 'Tuan' taldeko beste bi kideekin. Bi kontzertu eman zituzten, Korrika Kulturalaren barruan: Durangon eta Gasteizen. Bergarako hotel batean ostatu hartu zuten arren, Antzuolan pasatzen zuten eguneko zatirik handiena. Guk, poteoan harrapatu genituen, eta pozik asko jarri zitzaizkigun argazkirako.



zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zeorak eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Aintzane Irizar, Goienkaria eta Kontuolako berri-emailea

«Herriko talde eta elkarteekin harreman onak sendotu nahi ditugu»

Aurreko Kontuolan aditzera eman genizuen bezala, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak gestionatu du aurrerantzean Kontuola eta, ondorioz, Goienako langile bat arduratuko da Kontuola hamabostekaria osatzeaz.

Gauzak horrela, Idolaz euskara elkarteko kideek adierazi digutenez, "arrazoizkua pentsau jaku Goienkaria astekarixan Antzuolako berririk idazten ditudan pertsona bera izatia Kontuolaz be arduratuko dana". Hori dela eta, Aintzane Irizar arduratuko da hemendik aurrera Kontuolaz. 2000ko abenduaren lehenetik bera dabil Antzuolako berriak idazten Debagoieneko aldizkarian, Goienkarian. Oñatin jaiotakoa da, baina erdi antzuolarra ere bai; zuetako askok ezagutuko duzue seguruenek honez gero. 25 urte ditu eta Publizitateko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, baina berak esaten duen bezala, "zehatzago esateko, eta begirau ze polita gelditzen dan, Informazio Zientzietan lizentziatua naiz, Publizitate eta Harreman Publikoetan espezializatua".

Zelako albisteak jasoko ditu Kontuola berriak?

Alde batetik, astean zehar herrian gertatutako berriak jasoko ditu. Baina hori baino zerbait gehiago ere egin nahi dugu; herriko talde eta elkarte guztiekin harremanak sendotu nahi ditugu, eta eurekin elkarlanean jardun, herriko gertakizun eta berriei beste ikuspegi batetik heldu, hau da, herri txikietan gaurkotasanarekin lotutako albiste asko ez dira sortzen eta, horregatik, beste hainbat



Aintzane Irizar, Kontuolako berri-emaile berria.

kontu bihurtzen dira albiste. Bestalde, gaurkotasan izan ez arren, interes berezia duten herriko antzinako kontu eta istorioak agertzea ere nahi dugu. Gure helburua, dena dela, gaur egun daukagun Kontuolan oinarrituta, baina zerbait gehiago, eta, nola ez, hobea eskaintzea da. Ia, bada, lortzen dugun.

Zelakoa izango da Kontuola berria?

Aldaketarik nabarmenena itxura aldetik emango da, etorkizunean egunkari

formatora pasatuko da eta. Orain Berrigara, eta bere barruan Kontuola, Goienkariarekin batera banatzen da. Gero, berriz, Bergarako edizioaren barruan joango da, Elgetako Goibekokale eta Berrigararekin batera eta astero banatuko da. Oraindik zehazteke dago zenbat orrialde izango dituen Kontuolak; Goienkariako eta Debagoieneko aldizkari guztietako ordezkariek hori aztertzen ari dira eta; dena dela, pare bat orrialde izango dituela aurrez ikusten dugu.



Kontuola berria oraingoan oinarrituko da, baina zerbait hobea eskaintzeko helburua du



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Nuria eibartarra da, baiña orain dala lau urtetik bizi da Bergaran. Aerobik irakaslia da, eta Bergaran eta Elgetan emoten dittu eskolak Amaia Carrilloekin batera. Denda bat be badauka, Kamagüey. Alabatxo bat dauka: Malen.

Nuria Rodriguez

Kirolzalia izango zara, ezta?

Bai, beti gustatu izan jat kirola.

Aerobikaz gain, ze beste kirol gustatzen jatzu?

Mendirra juatia; denporia badaukat, gimnasia juatia be gustatzen jat, baiña ez naiz asko juaten.

Eta ikusteko?

Atletismua, batez be, emakumezkuena. Triatloia be oso politta da ikusteko.

Noiztik aerobik eskolak emoten?

Orain dala zortzi urtetik.

Zenbat ikasle ditzuzu?

Bergaran 200 bat, eta Elgetan 23.

Gehixenak emakumezkuak izango dira, ezta?

Bai; Bergaran hiru mutil dabitz, eta Elgetan beste horrenbeste.

Asteburu baterako plan ideala?

Nekazal turismo etxe batera juatia, Asturias aldera-edo.

Bizitzeko toki bat?

Kostia eta mendixa gertu dauzkan herri bat.

Eta oporretarako?

Cadiz edo Galizia.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Eskulanak egittia asko gustatzen jat: altzari zaharrak berritzu, margotu...

Bergarak zer falta dau?

Anbiente gehixago; baiña ez gabian baka-rik. Eibarren bizittasun gehixago egoten

da kalia, bai egunez, eta bai gabez.

Eta zer dago soberan?

Ezebe ez dot ikusten soberan dagonik; herri politta da Bergara, ondo dago.

Liburu bat?

Stephen Kingenak asko irakurtzen dittut, asko gustatzen jat.

Film bat?

Tomates verdes fritos.

Telebistako saio bat?

Bertatik bertara.

Egunkarixan, zer da irakurtzen dozun lehenengua?

Azala.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Pertsona alaixa naiz; batzutan lotsati samarra be bai.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Kariñosua izatia, konprensibua, eta biharra daukazunian laguntasuna emotia, nittaz arduratzia.

Modia jarraituko dozu, ezta?

Bai, modara juatia gustatzen jat.

Presumidia zara?

Bai, oso.

Bukatzeko, amets bat?

Nere familixiakin pozik bizitzia, eta Malen, nere alabia, ahalik eta onduen haztia.



MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

AZPEITXI

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jatetxea

URRATS

TABERNA

KOKTEL BEREZIAK

GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

IKUSBI

ALKANDORAK,

JERTSEAK, BAKEROAK

ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Bolu

liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurrira

Zurezko artikuluak

Bergarako oleo eta

lumatxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60



Aurrerantzean
ere jokatuko dira
profesionalen
partiduak frontoian.
ARTXIBOA

Hitzarmena bukatutzat eman dute

Aspe eta Asegarcek ez dituzte adostutako jaialdi denak antolatu

laz, otsailean, udalak hitzarmena sinatu zuen Aspe eta Asegarce pilota enpresekin. Urtebeteko iraupena zuen akordioak, eta beste urtebetez luzatzeko atak zabalik laga zituzten. Baina, aho batez erabaki dute udalak eta bi enpresek hitzarmena bukatutzat ematea.

Ordu arte, iazko otsaila arte, hain justu, Asegarce enprezarekin zeukan hitzartuta udal pilotalekuaren kudeaketa. Asegarcek ez zuen hitzartutako jaialdi kopurua bete, eta bi enpresekin beste hitzarmen bat adosteko erabakia

hartu zuen udalak. Horrela, bi enpresekin harremanetan jarri, eta iaz, otsailean, sinatu zuten hitzarmena.

HAMABINA JAIALDI

Hitzarmen horretan sinatutakoaren arabera, enpresa bakoitzak hamabi jaialdi

antolatzea hitzartu zuen. Gainera, partidu horiek lehen mailako pilotarien artekoak izango zirela adostu zuten. Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, «gu ez geunden batere ados enpresen funtzionamenduari; batetik, oso tarteka antolatu zituztelako jaialdiak,



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

eta bestetik, partiduak ez zirelako lehen mailakoak». Azkenean, enpresek ez dute hitzartutako partidu kopurua bete: Aspek hamaika jaialdi antolatu ditu eta Asegarcek, berriz, zortzi besterik ez.

ERRENTAGARRITASUNIK EZA

Enpresa biak bat datoz Bergarako pilotalekuaren errentagarritasunik eza azaltzerako orduan. Enpresen esanetan, urtean antolatu dituzten jaialdi gehiengotan, bi jaialditan izan ezik, emaitzak defizitarioak izan dira. Gainera, jaialdi asko zapatuetan izanda, telebistan ordu beretsuan emititzen dituzten partiduak kompetentzia zuzena dira. Victoriano Gallastegiren hitzetan, «Bai Euskal Herrian eta bai kanpoan ere, pilota jaialdien izugarritzko eskaria dago; azken baten, Aspe eta Asegarce enpresak dira, eta normala den moduan, diru gehien ematen dieten frontoietara joaten dira». Inigo Salbidea Asegarceko ordezkariaren eta Patxi Mutiloa Aspeko ordezkariaren ikuspegia ere jakin nahi izan dugu, jakina. Euren esanetan, udalarekin sinatutako hitzarmenek ez dute aurrera egiten. Hau da, astero-astero partiduak egoteak ez du aurrera egiten.

ZALETASUNA GAINBEHERA

Garai baten, zaletasun handia zegoen Bergaran. Pilotalekua bete-bete egiten zen. Gaur egun, ordea, ez da horrenbeste jende joaten. Horren arrazoia zein den jakitea ez da erraza. Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, hainbat faktorek hoztu dute Bergaran



lazko otsailean sinatu zuten hitzarmena udalak eta bi enpresek. DV

pilotarako zegoen zaletasuna: «Alde batetik, frontoia denbora luzez egon zen erabili barik, besteak beste, berrikuntza lanengatik; beste alde batetik, jaialdiak oso noizean behin antolatu dira eta, gainera, ez dira lehen mailakoak izan. Jendea, azkenean, aspertu egiten da, eta zaletasuna hoztu egiten da». Aspeko eta Asegarceko ordezkariak ez daude ados alkatearekin. Inigo Salbidearen hitzetan, «bai Aspek eta bai guk ahalegin handia egin dugu kalitatezko partiduak antolatzeko; adibide bat nahikoa izan daiteke: lau t'erdiko txapelketan, Arrasaten partidu bat antolatu genuen, eta 600 bat lagun joan ziren; hurrengo egunean, berriz, Bergaran, 140 lagun, besterik ez ziren joan». Patxi Mutiloaren esanetan, «zaletasun gero eta gehiago dago kalean, eta ez horrenbeste frontoietan».

JAIALDI JAKIN BATZUK EGINGO DITUZTE

Behin hitzarmena bukatutzat emanda, udaleko arduradunen helburu nagusia da ohiko bilakatu diren jaialdi batzuk egitea: Erramu Zapatukoa, Urteberri egunekoa, San Martinetakoa eta Pazkuetakoa lau jaialdiak egin nahi ditu udalak.

Aspek eta Asegarcek ere ildo horretatik egin dituzte euren proposamenak; hau da, udalarekin hitzarmen puntualak egitearen alde azaldu dira, jaietan eta egun berezi batzuetan lehen mailako partiduak antolatzeko. Partidu horiek, gainera, ez dira defizitarioak izaten. Inigo Salbidea Asegarceko ordezkariaren esanetan, «gure politika da akordio puntualak egitea». Patxi Mutiloak ere berdintsu egin digu berba Asperen izenean: «Gaur egun, txapelketako partiduek edo jaietan antolatzen ditugun partiduek arrakasta dute, eta horiek antolatzeko prest gaude; eta gainera, hori ez da Bergaran bakarrik gertatzen, toki askotan baizik. Bestalde, guk pilotaleku guztietara joan nahi dugu, baina ez era horretako hitzarmenak sinatzea, gero ezin baditugu bete».

Jaietan eta egun berezietan lehen mailako partiduak antolatzeko hitzarmen puntualak egitea da Udalaren eta enpresen helburua



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrekka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

Udaleko Kirol zerbitzuko bazkide txartela %25 merkeagoa aurten

Astelehenero osoko bilkuran, Kirol zerbitzuko bazkide txartela aurten %25 merkeagoa izatea onartu zuten. Barruko igerilekuak itxita egon dira abenduaren 15etik martxoaren 26a arte, eta hori izan da tarifak merkatzeko arrazoi nagusia.

Joan den abenduaren 15ean, sabaian dagoen berogailuaren hodi zati bat erori zen igerilekura, eta, hori dela eta, konponketa lanak egin behar izan dituzte. Gimnasioa, sauna eta solarium zerbitzua zabalik egon badira ere, igeri egiteko Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Soraluze eta Eibarre-ra jo behar izan dute Bergarako Kirol zerbitzuko bazkideek, herri horietako kirol zerbitzuekin egindako hitzarmenari esker. Dagoeneko, urte laurden igaro denez, Kirol batzordeak tarifak egokitzeko proposamena egin zuen, eta joan den urteko tarifek %25eko deskontua ezartzea onartu zuten astelehenero bilkuran.

KONPONKETAK, 8 MILIOI

Esan bezala, astelehenean, martxoak 26, zabaldu zituzten barruko igerilekuak. Azken hilabeteotan, hainbat konponketa egin behar izan



Konponketa lanak egin ondoren, igerilekuak astelehenean zabaldu ziren publikora.

dituzte. Besteak beste, sabaiko uralita aldatu dute, burdinezko euskarriak berriitu egin dituzte eta sabai faltsuan egoera txarrean zeuden kortxo zatiak ere aldatu behar izan dituzte. Era berean, sabaian sarea jarri dute, abenduan gertatutakoa errepika ez dadin. Lanek zortzi milioi pezeta inguruko aurrekontua izan dute.

Bazkide kanpaina abian da jadanik, eta interesatuek Kirol zerbitzura jo dezakete bazkide txartela egiteko. Esan bezala, iaizko tarifei

%25eko deskontua ezarriko zaie. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian jaso daitezke. Igerilekuak, astebarruan, 07:00etatik 21:00etara izango dira zabalik; zapatuetan, 08:00etatik 19:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 08:00etatik 14:00etara. Ekainaren 11n, udako denboraldia hasiko da, Kirol zerbitzuko iturrien arabera.

ZAPATU GOIZEAN ITXITA

Zapatuan igerilekuetan jokatuko den txapelketa dela eta, bainu eremua 9:00etatik 13:30era itxita izango da.

TARIFAK

Pezetatzen

INDIBIDUALAK

18 urtetik beherakoak7.540
18 urtetik gorakoak11.360
18 urtetik gorakoak*7.540

FAMILIARRA

2 kide >LGS14.960
2 kide ≤LGS7.650
3 edo 4 kide >LGS15.940
3 edo 4 kide ≤LGS8.140
5 kide edo gehiago >LGS17.510
5 kide edo gehiago ≤LGS8.925
Pentsiodun	
senar-emazteak >LGS13.160
Pentsiodun	
senar-emazteak ≤LGS6.750

*Langabeak eta ikasleak
LGS: Lanbide arteko gutxieneko soldata

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf. 943 76 55 74

Antxintxika triatloi taldea hirugarren Oñatin

Antxintxika talde ber-gararrak hirugarren postua eskuratu zuen zapatuan Oñatin jokaturako duatloian, taldekako sailkapenean. Guztira, 160 lagun inguru izan ziren lehian, eta partaideek ondoko ibilbidea bete behar izan zuten: zazpi kilometro lasterka, beste 40 kilometro bizikletan (Udanako buelta) eta, azkenik, beste 3,5 kilometro lasterka, Oñatin bertan.

Irabazlea Gorka Mujika eibartarra izan zen, ordubete, 40 minutu eta 54 segundoko denborarekin. Antxintxika taldeko lehena Aitor Larrea antzuolarra izan zen: seigarren heldu zen helmugara (1:41:50); Julen Garitano 12. tokian sailkatu zen (1:44:36); Iker Larrea 23.a (1:46:49) izan genuen, Aitor



Antxintxika taldekoak bikain aritu ziren Oñatiko duatloian.

Rementeria 26.a (1:48:03), Aritz Kortabarria 100.a (2:01:27) eta, azkenik, Joseba Zuzaeta 108. postuan (2:02:58) heldu zen.

Oñatikoa euskal duatloi zirkuituko bigarren proba izan zen, aurreko astean Ba-

sauren jokaturakoaren ondoren. Antxintxikakoek hirugarren proba izango dute domekan, apirilak 1, Ermuan. Zirkuituan 12 duatloi proba dira guztira. Antxintxika taldean Antzuola eta Bergarako 7 lagun ari dira.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Aretxabaleta B

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 12:00. Ipintza

Bergara-Oiartzun

Ohorezko mailako gazteak
Zapatua. 17:00. Ipintza

Bergara-Santo Tomas Lizeoa

Ohorezko mailako kadeteak
Domeka. 10:30. Ipintza

Bergara-Billabona

Lehen mailako gazteak
Domeka. 12:00. Ipintza

Bergara-Antzuola

Bigarren mailako erregionala
Domeka. 17:00. Agorrosin

SASKIBALOA

Bergara-Larramendi

Senior mutilak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia

Bergara-Aloña Mendi

Gazte mutilak
Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia

PILOTA

UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Elgoibar (2. maila, kadet.)

Bergara-Intxaurren (2. maila, gazteak)

Bergara-Zumarraga (seniorrak)

Gaur, egubakoitza,
Udal Pilotalekuan, 19:30ean

TENISA

Tenis txapelketako finala bihar, zapatua, Kiroldegian, 11:00etan. Aurretik, 9:00etan, hirugarren posturako partidua jokatu da

Ariznoako gimnastak Arrasaten zapatuan

Alebin, infantil eta kadete mailako Ariznoa taldeko gimnastak Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko proba izango dute zapatuan, martxoak 31, Uarkape pilotalekuan, 10:00etatik aurrera. Gipuzkoako txapelketarako lehen proba puntuagarria Bergaran jokatu zen, eta bihar bigarrena eta

azkena jokatu da Arrasaten. Hantxe Arrasate, Azkoitia, Elgoibar, Zarautz, Tolosa eta Bergarako taldeak izango dira lehian.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Begarako taldeari dagokionez, alebin mailan, Sarai Gallego, Amaia Markiegi, Eider Carrasco, Sarai Ruiz

eta Peregrina Nsuek osaturako taldeak parte hartuko du. Sarai Gallego banakako proban ere izango da. Infantil mailan, Irati Arteagak eta Virginia Odriozolak banakako proban jardungo dute, eta gero, euren taldekideekin batera (Izargi Vega, Naiara Cantero eta Maialen Legorburu), taldekako-

an. Azkenik, kadete mailan, Bergarako Ariznoa ordezkatzuz, Iraitz Gastiain, Maialen Toledo eta Usue Arregi izango dira bihar Uarkapen. Sonia Corredera entrenatzailearen arabera, guztiek dute aukera maiatzaren 26an Ibarren jokatu den Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko.

ATARI

Zure komunitateko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

Agirrebeña

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bar Canalejas-Irubide	2-3
Bar Ugarte-Bildurbarek	3-6
Apa Oxemai-Errotagain	4-15
Fac-Pagomendi	2-4
Eri-Amoskibar	2-5

B MULTZOA

Pinturas Bergara-Amilotx	0-3
Aterpe-Agirrebeña jatetxea	4-8
Cine Bank Irimo-Kanpazar	4-4
Bayer-Alum. Kresala	10-2
Etengabe-Vacalouras	2-5

C MULTZOA

Mongatxurak-Txipiron	5-3
Shaktale-Patxaran Team	5-5
A Ze Flaxa-Artusamak	3-5

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

17:30: Shaktale-Artusamak	Eri
18:30: Eri-Apa Oxemai	Shaktale
19:30: Bildurbarek-Pagomendi	Apa Oxemai

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Torrekua-Buya	Amoskibar
10:30: Amoskibar-Fac	C.B. Irimo
11:30: Cine Bank Irimo-Vacalouras	Fac
12:30: Canalejas-Bar Ugarte	C.B. Irimo
16:00: Alum. Kresala-Amilotx	Aterpe
17:00: Pint. Bergara-Aterpe	Agirrebeña
18:00: Agirrebeña-Ortzi	Bayer
19:00: Kanpazar-Bayer	K.Piperrak
20:00: Patxaran Team-K.Piperrak	Kanpazar

ARGI!

Pinturas Bergara, zigortuta

Pinturas Bergara taldeari Amilotx taldearen kontra jokatu beharreko partidua 0-3ko emaitzarekin galdutzat eman zaio, partidura ez aurkezteagatik. Horrez gain, hiru puntu kendu dizkiote. Bestalde, Maikel Cid (Cine Bank Irimo) jokalaria partidu bateko zigorra bete beharko du.

Bi aldiz arbitratzera

Cine Bank Irimo taldekoei epaile lanetan jardutea tokatuko zaie astebukaeran. Bi partidu zuzendu beharko dituzte.

Bar Canalejas eta Apa Oxemai

Bar Canalejas taldea ez dabil hain fin aurten, eta Irubideren aurka galdu zuen zapatuan. Apa Oxemai, berriz, gol zaparrada jaso zuen Errotagainen aurka.

mahoneroak



ARKAITZ ARANA
BKEko jokalaria

Zapatuan, UPV-EHU taldearen aurka, seigarren partidua jarraian galdu genuen eta gauzak konplikutzen ari zaizkigu. Taldeak konfiantza pixka bat galdu du beharbada, eta bigarren itzulian oso gaizki ari gara, bi partidu besterik ez ditugu irabazi eta. Liga amaitzeko zazpi partidu geratzen zaizkigu eta horietatik hiru Agorrosinen jokatuko ditugu, Sodupe, Durango eta Zamudioaren kontra. Mailari eusteko, hiru horiek eta kanpokoren bat irabaztea komeni zaigu.

Zapatuan ez genuen partidu onik jokatu, baina beraiek beste egin genuen eta, nire ustez, berdinketa emaitza justuagoa zatekeen. Gol aukera gutxiko partidua izan zen, eta beraiek gu baino zorte handiagoa izan zuten ate aurrean. Gure alde-tik Pako Santiagok izan zuen aukerarik onena.

Domekan Realaren aurka jokatu dugu eta motibazioa ez zaigu faltako emaitza positiboren bat lortzeko. Ea lehen itzulera gertatu zen bezala donostiarrei irabazteko gauza garen.

Bildurbarek Opel Lam eta Artusamak

Bildurbarek Opel Lam taldeak Bar Ugarte liderrari irabazi zion zapatuan, eta Artusamak taldeak gauza bera egin zuen C multzoako liderraren aurka.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	49	19
2. Errotagain	46	19
3. Bildurbarek Opel Lam	40	19
4. Bar Canalejas	34	19
5. Pagomendi	33	19
6. Amoskibar	30	18
7. Fac	21	19
8. Irubide jatetxea	18	19
9. Eri	16	17
10. Buya	14	18
11. Torrekua	10	18
12. Apa Oxemai	4	19

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	41	16
2. Ortzi	33	15
3. Kanpazar Harrobia	32	16
4. Aluminio Kresala	32	16
5. Amilotx	29	17
6. Bayer	26	17
7. Pinturas Bergara	17	16
8. Vacalouras	13	16
9. Agirrebeña jatetxea	10	16
10. Cine Bank Irimo	9	17
11. Etengabe	4	17
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	16
2. Mongatxurak	33	14
3. Artusamak	31	13
4. Guadalest	27	15
5. Txipiron	19	15
6. Komando Piperrak	19	14
7. Shaktale	14	13
8. Patxaran Team	5	14
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubiillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

UPV-EHU taldearen kontra honako jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Oier Loiola.....3 puntu
Arkaitz Arana.....2 puntu
Gorka San Vicente.....1 puntu

Etzeko partidua bakarrik hartzen ditugu kontuan.

Neska-mutikook, zatozte jolastera!



Laster
zabalik!

OKIPARK

Amillaga 1 ean gaude. Telefonoa 943 76 94 52



PATATAK

1 -FRUITUAK	375
2 -BRABAK	375
3 -ALIOLI	375

BOKATAK

4 -PATATA TORTILA	500
5 -BEJETALA	500

SOLOMOA

6 -SOLOMO HUTSA	450
7 -ROKEFORT SALTSAREKIN	500
8 -PIPAR BERDE ETA GAZTAREKIN	500
9 -PIPAR GORRIKIN	500
10 -TXANPINOI SALTSAREKIN	500
11 -GAZTAREKIN	500
12 -PATE ETA OPORTOZ POTXATUTAKO KIPULAREKIN	550

OILASKO PETXUGA

13 -TXANPINOI SALTSAREKIN	550
14 -ROKEFORT SALTSAREKIN	550
15 -YORK URDAIAZPIKOA ETA MAIONESAREKIN	550
16 -URDAIAZPIKOA GAZTAREKIN	550

URDAIAZPIKOA

17 -TOMATE ETA TXATKAREKIN	500
18 -TXATKAREKIN	500
19 -GAZTAREKIN	475
20 -URDAIAZPIKOA	450
21 -PIPAR BERDEAK ETA GAZTAREKIN	500

HIRUGIHARREA

22 -GAZTAREKIN	475
23 -GAZTA ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	500
24 -PERRETIXIKO ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	550

HANBURGESAK

25 -OPORTOZ POTXATUTAKO KIPULA ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	550
26 -HANBURGESA HUTSA	475
27 -PIPER BERDE ETA GAZTAREKIN	525
28 -ROKEFORT SALTSAREKIN	525
29 -LETXUGA ETA TOMATEA MAIONESAREKIN	550

SANDWICHAK

30 -YORK URDAIAZPIKOA ETA GAZTA	425
31 -LETXUGA, TOMATEA, YORK URDAIAZPIKOA, GAZTA, ATUNA ETA MAIONESA	475
32 -LETXUGA, TOMATEA, YORK URDAIA, GAZTA, TXATKA ETA MAIONESA	475

GEHIGARRIAK

.....	60-100
-------	--------



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrea.
Tf. 943 76 71 19

SAN MIGUEL zapatua, martxoak 31,
23:00etatik 02:00etara
jaia Eskatu bat eta...
bi edan

Deitu eta eskatu telefonoz!

SUKALDEKO ORDUTEGIA

GOIZEZ: Astelehenetik ostiralera, 13:00-15:00. Larunbat eta igandetan, 13:00-14:30
ARRATSALDEZ: Igandetik ostegunera, 19:00-22:00. Ostiral eta larunbatetan, 19:00-23:00



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

bonofotoa


Nor da San Joxepe elkartean dagoen eskultura honen egilea?

galde debalde

1. Zer bidaliko du Bergarako Udalak Gleibat Elfula herrira, besteak beste?
 A- Botikak eta bozgoragailuak
 B- Botikak eta janaria
 C- Bozgoragailuak eta arropa

2. Zeinekin zeukan udalak pilotalekua kudeatzeko hitzarmena iazko otsaila arte?
 A- Asperekin
 B- Asegarcerekin
 C- Aspe eta Asegarcerekin

3. Zenbat kilometro egingo ditu guztira Korrikaren 12. aldiak Bergaran?
 A- Zazpi kilometro
 B- Hamabi kilometro
 C- Bederatzi kilometro



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Juli Urkizurenzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Juliri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
 Bonofotoa: **Mekolalde Azpikua**
 Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonia:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Leader Price
 esne osoa, litroa
87 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Astelehenean, hilaren 2an, ailegatuko da Korrikaren hamabigarren aldia Bergarara

20:11 aldera sartuko da Osintxutik, eta 9 kilometro egingo ditu herrian

Datorren astelehenean ailegatuko da Korrikaren 12. aldia gure artera. Ohi bezala, herriko hainbat taldek lekukoa hartu eta eskutik eskura Antzuolarako bidean jarriko dute. Bestalde, arratsaldean neska-mutikoen Korrika Txikia egingo dute.



Ordu ezin hobean helduko da Bergarara Korrika.

ARTXIBOA

20:11 aldera helduko da Korrika 12 Bergarara, ordu ezin hobea euskararen alde korrika egiteko. Osintxutik sartuko da, eta herria igaro ostean, Antzuolarako bidea hartuko du. Bederatzi kilometro egingo ditu Bergaran barrena, eta kilometro bakoitzeko talde batek, eta batzuetan bat baino gehiagok, hartuko du lekukoa. Lehenengo kilometroan Osin-

txuko auzotarrek eramango dute, eta Osintxuko frontoi parean Jardun Elkarteari eta Xamatx dantza taldeari utziko diote. Bidegurutzean, Amnistiaren Aldeko Komiteak hartuko du, eta ostean, ikastetxe publikoek.

Iberdrola ondoan aldatuko dute lekukoa bosgarren aldiz, eta Aranzadi ikastolak hartuko du. Aperribai lantegiaren parean LAB eta EHk erdibana, eta azken hiru kilometroak honako taldeek egingo dituzte: Akulu AEK

euskaltegiak, Euskal Herriaren Euskaraz-ek eta Gazte Asanbladak (poligonoko farmazian); ikastetxe publikoek (San Martin plazan), eta Mariaren Lagundia ikastolak (San Antonion). Orduetgia betez gero, 21:00ak aldera Antzuolarako bidea hartuko du Korrikak.

KORRIKA TXIKIA

Horrez gain, izango da bestelako ekitaldirik Korrikaren barruan. Arratsaldean, 15:30 aldera, ikastetxeetako neska-mutikoen Korrika Txikia egingo dute Poligonoko zubitik San Martin plazaraino. Ondoren, 16:30ean, klariornada egongo da San Martin plazan umeendako, eta 18:00etan, trikitalariek herriko kaleak alaituko dituzte.


Brossa, Taun Taunen azken lanaren oinarria

Taun Taun antzerki taldeak 'Kontarte' lana estreinatu berri du Bartzelonan. Azken lana dute, eta Joan Brossa artista katalanaren obran oinarritzen da. Brossa (1919-1998) artista oparoa izan zen, eta adituaren ustez, XX. mendearen bigarren erdiko poesia, antzerki eta ar-

tearen berritzailea, eta ikus-poesiaren aitzindaria.


Ikus-poesian oinarritu du Taun Taunek 'Kontarte' lana. Aspaldian dihardu taldeak Brossa lantzen. Baina, antzezlan horretan buru-belarri sartzeko bultzada abuztuan izan zuten, Brossaren tarteko baten bidez.

Brossaren esentzia islatu nahi izan du Taun Taunek, haren ikus-poesia eta antzerki irregularra euren antzerkia egiteko erara ekarri. Joan den asteburuan estreinatu zuten, eta oso kritika onak jaso ditu. Euskal Herriaren eskaintzeko lanean dihardute.



Brossaren ikus-poesia bat.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*



Izozkigilearekin, 1950 urtean

Dagoeneko, zeharo galdu da izozkigilearen irudia. Garai baten, aldiz, oso arrunta zen hango eta hemengo jaietan izozkigileak ikustea. Bergarara ere etortzen ziren izozkigileak aspaldi, eta ziur udaberri-uda partean ez zutela negozio txarririk egingo. Antza denez, oraingo asteko erretratu zaharrean agertzen den izozkigile-a Zubiaurre eta Ozaeta aldean ibiltzen zen izozkiak saltzen, eta han ibiliko zen gora eta behera, izozkiendako orga txikiarekin. Erretratua 1950. urtekoa da, eta izozkigile-aren ondoan txapelarekin dagoen gizona Eustakio Barrantia duzue. Argazkia Ibarra parean, Etxeaundikuaren aurrean, ateratakoa da. Argazkia ikusita eta azken egunotako beroarekin, bat baino gehiago egongo da izozkien denbaldiaren zain...

Argazkia: Jose Jabier Barrantia

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



☎ 943 76 20 61


**Ametsa bete da:
lo egiten duzun
bitartean,
argaltzea**

Olio fitoaromatikoen
bidezko tratamendua




**MARY
COHR**
PARIS

Bular tente eta leunak
lortzeko tratamenduak ere baditugu



**LASER
DEPILAZIOA**
LIGHTSHEERekin. Laser medikua

Osasuna zainduz • Minik gabe

Amets
EDERTZE ARETOA

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

- Arozlan mekanikoak
- Ateak
- Horma-armairuak
- Tarimak eta Parketak
- Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak
- PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

expert 



RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzazatik